

**APIRILAREN 1a BAINO LEHENAGO 61 URTEKIN ERRETIRATZEKO
ENPRESA –HITZARMENA SINATZEKO AUKERA DAGO**

Aurreko larunbatean, martxoaren 16an, BOEn argitaratu zen Raxoiren Gobernuak ostiraleko Ministro kontseiluak onartutako dekretua eta, finean, pentsioen erreforma berria dena. Dekretuak, zatikako erretiroari dagokionez, bi motatako neurriak ditu:

- a) Zatikako erretiroa hartzeko baldintzak gogortzen ditu, espero zen bezala.
- b) 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen 61 urte betetzen dutenentzat zatiketa erretiro aukera ahalbideratzen du baldintza batzuk betez gero.

Apirilatik aurrera zatikako erretiroa hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira: gutxienez, 33 urte eta 3 hilabeteko kotizazio-aldia, enpresan 6 urteko antzinasuna eta 61 urte eta 1 hilabeteko adina. Baldintzok gogortzen doaz denbora aurrera egin ahala eta dira 2027. urtean 63 urte, gutxienez, izan behar dira eta 36 urte eta 6 hilabeteko kotizazio-aldia.

Hau gutxi balitz, zatikako erretiroa hartzerakoan, lanaldi murrizketa, gutxienez %25ekoa eta gehienez %50koa izango da (erreforma honen aurretik %75ekoa zen). Salbuespen moduan, zatikako erretiroaren portzentajea %75ekoa izan daiteke baldin eta errelebistari egiten zaion kontratua lanaldi osokoa eta behin betikoa den.

Argi dago baldintzak gogortuko direla eta azken aukera profitatu behar dugula, enpresetan 61 urteekin zatikako erretiroak egiteko akordioak egin daitezten.

Badago enpresekin zatikako erretirori buruzko akordioak sinatzeko aukera martxoaren 31 arte. Horrela, akordio horrek eragiten dituen pertsonak %75eko zatikako erretiroa har dezakete 61 urteekin 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenago betez gero.

Hitzarmen hori Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean erregistratu behar da apirilaren 15 baino lehenago. Erregistroarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira: hitzarmen jasotzen dituen pertsonen nortasun datuak, hitzarmenaren indarraldia eta lurralde-eremua jasotzen dituen idazkia – baldin eta akordioan adierazita ez dauden- eta akordioak eragindako kotizazio kodeak.

Zalantzarik izanez gero, deitu egoitzetara.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Deskalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	948212355	948229790	nafarroa@stee-eilas.org